Bestelako Xedapenak

NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

2391

AGINDUA, 2009ko apirilaren 1ekoa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, «Arabako Txakolina/Txakolí de Álava/ Chacolí de Álava» Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileko lehendakaria eta lehendakariordea izendatzekoa.

«Arabako Txakolina/Txakolí de Álava/ Chacolí de Álava» Jatorrizko Deituraren Arautegiaren Testu Bategina onartu duen Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2008ko ekainaren 17ko Aginduaren 32.1. artikuluak zehazten duenez, Osoko Bilkurak lehendakari eta lehendakariordearen hautespenaren berri emango dio Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari, sailburuak izenda ditzan.

Era berean, «Arabako Txakolina/Txakolí de Álava/ Chacolí de Álava» Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileko kontseilukideak hautatzeko prozedura ezarri eta hartarako deia egin duen Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2008ko urriaren 24ko Aginduaren 28. artikuluak ezarritakoaren arabera, kontseilukideek hautatutako lehendakari eta lehendakariordearen berri emango zaio Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari, sailburuak izenda ditzan; berriemate horretan, hautagaiek lortutako boto-kopurua jasoko da.

Kontseilu Arautzaile horren kontseilukideak dagoeneko hautatu direnez, bidezkoa da kontseilukideek aho batez proposatutako lehendakaria eta lehendakariordea izendatzea.

Horiek horrela eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren egitura eta egitekoak ezartzeko den urriaren 11ko 290/2005 Dekretuaren 3. artikuluarekin bat, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Josu Ortuzar Txarterina jauna, «Arabako Txakolina-Txakolí de Álava» Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileko lehendakari izendatzea.

Bigarrena.– Luis Mariano Álava Zorrilla jauna, «Arabako Txakolina-Txakolí de Álava» Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileko lehendakariorde izendatzea.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

2391

ORDEN de 1 de abril de 2009, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se procede a la designación del Presidente y del Vicepresidente del Consejo Regulador de la Denominación de Origen «Arabako Txakolina/Txakolí de Álava/ Chacolí de Álava».

El artículo 32.1 de la Orden de 17 de junio de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se aprueba el Texto Refundido del Reglamento de la Denominación de Origen «Arabako Txakolina/ Txakolí de Álava/ Chacolí de Álava», establece que el Pleno del Consejo Regulador notificará al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación el resultado de la elección de Presidente/a y Vicepresidente/a para su nombramiento por el Consejero.

Asimismo, el artículo 28 de la Orden de 24 de octubre de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se convoca y abre el proceso electoral a vocales del Consejo Regulador de dicha Denominación de Origen, establece que se comunicará al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, para su nombramiento, las personas que los y las vocales elijan para ejercer la Presidencia y la Vicepresidencia, haciéndose constar los votos obtenidos por las personas candidatas.

Finalizado el proceso de elecciones a Vocales del citado Consejo Regulador, procede la designación del Presidente y Vicepresidente propuestos por unanimidad de los y las vocales.

En su virtud, y de acuerdo con el artículo 3 del Decreto 290/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación,

RESUELVO:

Primero.– Designar a D. Josu Ortuzar Txarterina como Presidente del Consejo Regulador de la Denominación de Origen «Arabako Txakolina-Txakolí de Álava».

Segundo.– Designar a D. Luis Mariano Álava Zorrilla como Vicepresidente del Consejo Regulador de la Denominación de Origen «Arabako Txakolina-Txakolí de Álava».

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 1a.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

Tercero.– Publíquese la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de abril de 2009.

El Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.